



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko urtarrilaren 21a

2. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—22/2010 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Akats zuzenketa (2. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Publikoaren Plan Estrategikoari buruzko lan-taldearen txostena. Osasun Batzordeak onetsia (3. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

22/2010 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzkoa.

AKATS ZUZENKETA

Akatsak atzeman ditugu 2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzko Foru Legean, zeina 2010eko abenduaren 30eko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen. Jarraian adierazten dira egin beharreko zuzenketa:

10. orrialdeko ezkerreko zutabearen, 16. artikuluko 1. idatz-zatian, *“Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari zorpetze-eragiketak egiteko, muga bakarra ezarriz, alegia, 2010eko abenduaren 31ko saldo bizia ez izatea 2010eko urtarrilaren 1ekoa baino 288.600.000 euro handiagoa”* dioen lekuan, honako hau esan behar du: *“Baimena ematen*

zaio Nafarroako Gobernuari zorpetze-eragiketak egiteko, muga bakarra ezarriz, alegia, 2011ko abenduaren 31ko saldo bizia ez izatea 2011ko urtarrilaren 1ekoa baino 288.600.000 euro handiagoa”

12. eta 13. orrialdeetan, 28. artikuluan, “hamaigarren xedapen gehigarria” aipatzen den guztietan, “hamaikagarren xedapen gehigarria” ulertu behar da.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Publikoaren Plan Estrategikoari buruzko lan-taldearen txostena.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko 113.1 artikuluan xedatua betez agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Publikoaren Plan Estrategikoari buruzko lan-taldearen txostena, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak 2010eko abenduaren 29an onetsia.

Iruñean, 2010eko abenduaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Publikoaren Plan Estrategikoari buruzko lan-taldearen txostena

I. AURREKARIAK

1. Nafarroako Parlamentuak, 2008ko otsailaren 14ko Osoko Bilkuran, erabaki bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatu baitzuen Nafarroako Osasun Publikoaren Plan Estrategikoa egin zezan (17. NPAO, 2008ko otsailaren 22koa). 2009ko ekainaren 23an, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak, aipatu erabakia betez, Nafarroako Osasun Publikoaren Plan Estrategikoa igorri zuen parlamentu honetara.

2. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eskatuta, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak erabaki zuen, 2009ko urriaren 7ko bilkuran, plan estrategiko horri buruzko lan-talde bat eratzea. Erabakian lan-taldearen ezaugarriak zehaztu ziren eta lan-taldearen helburu nagusia ezarri zen: bertan onesten ziren ondorioak jasotzen dituen dokumentu bat prestatzea (102. NPAO, 2009ko urriaren 15koa).

3. Lan-taldea 2009ko ekainaren 16an eratu zen, eta ondoko kideak izan ditu, Legebiltzarreko parlamentu-taldeek eta foru parlamentarien elkar-teek izendatuta: Jesús Javier Marcotegui Ros jauna (UPN parlamentu-taldea), Asun Fernández de Garaialde andrea (NABAI parlamentu-taldea),

María Chivite Navascués andrea (SPN parlamentu-taldea), José Andrés Burguete Torres jauna (CDN foru parlamentarien elkarte) eta Ana Figueras Castellano andrea (IUN-NEB foru parlamentarien elkarte). Idazkari lanetan Miguel Esparza Oroz legelaria jardun da.

4. Lan-taldea eratzeko bilkuran barne-funtzionamenduari buruzko arauak onetsi ziren eta María Chivite Navascués andrea hautatu zen lehendakari. Orobat erabaki zen lan-taldeko kideek proposatuko zituztela Osasun Publikoaren Plan Estrategikoaren azterketan sakontze aldera agerraldia nork egitea komeni zen.

5. Lan-taldean ondokoek parte hartu dute: Nafarroako osasun publikoko zenbait zuzendari-kargu, osasun arloko eta osasun-kudeaketaren arloko profesionalak eta adituak, osasun arloarekin zerikusia duten elkarteak eta korporazioak, ordezkari sindikalak eta bestelako erakundeak.

Lan-taldean agerraldia egin dute, aurtengo otsailetik maiatzera bitarte, ondotik ageri diren pertsonen, zeinen parte-hartzea eta laguntza eskertu nahi baitugu:

I. Nafarroako Osasun Administrazioako kargu publikoak

Osasuneko zuzendari nagusia, Isabel Martín Montaner andrea

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Laguntza Espezializatuko zuzendaria, Francisco Javier Sada Goñi jauna

Nafarroako Osasun Publikoaren Zerbitzuko zuzendaria, M^a Soledad Aranguren Balerdi andrea

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Bihotzaren Gune Klinikoko zuzendaria, Román Lezáun Burgui jauna

Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zuzendari kudeatzailea, José Carlos Garde Celigüeta

Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaria, Cristina Ibarrola Guillén andrea

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Kirurgiako Arlo Funtzionaleko zuzendaria, José Miguel Lera Tricas jauna

Ikerketa Biomedikoko Zentroaren kudeatzailea, Encarnación Pérez Equiza andrea

Giza Baliabideen zuzendaria, José María Aeyra Lazcano jauna

Nafarroako Ospitaleko Erizaintzako zuzendaria, Teresa Blasco Altuna andrea

San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoko zuzendaria, Mercedes Ferro Montiu andrea

II. Osasun arloko eta osasun-kudeaketaren arloko profesionalak eta adituak

Nafarroako Ospitaleko Geriatria Zerbitzuko burua, José Luis Larrión Zuasti jauna

Nafarroako Ospitaleko Kardiologia Zerbitzuko burua, Miguel Ángel Imizcoz Zubigaray jauna

Nafarroako Ospitaleko Ictus Unitateko burua, Jaume Gállego Culleré jauna

Eusko Jaurlaritzeko Osasuneko kontseilariordea, Jesús María Fernández Díaz jauna

Osakidetzako zuzendaria, Julián Pérez Gil jauna

Madrileko San Carlos Ospitale klinikoko zuzendari kudeatzailea, José Soto Borrel jauna

San Juan de Dios Ospitaleko zuzendari kudeatzailea, Patricia Segura Sádaba jauna

Tolosako La Asunción Klinikako zuzendaria Agustín, Aguirre Aramburo jauna

Madrileko oinarrizko laguntzako espezialista, Juan Luis Ruiz-Giménez Aguilar jauna

Nazioarteko Osasun Publikoaren Departamentuko burua (Osasuneko Eskola Nazionala)- irakaslea, José Manuel Freire Campo jauna

Geriatrico osasun-espezialista, Isidoro Ruipérez Cantera jauna

Oinarrizko Laguntzako teknikaria, sendagilea, Hobekuntza Planaren Unitatea, Luis Gabilondo Pujol jauna

Nafarroako Ospitaleko sendagilea, Francisco Javier Abad Vicente jauna

Sanduzelaiko osasun etxeko sendagilea, Félix Zabalza Irigoyen jauna

Donostia Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuko burua, Pablo Busca Ostolaza jauna

Nafarroako Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuko burua, Javier Sesma Sánchez jauna

Ekonomia Aplikatuko katedraduna (NUP), Juan Cabases Hita jauna

Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa, Miguel Ángel Vesga Carusa jauna

Aholkularitzako zuzendaria, Fernando Silió Villamil jauna

Osasun-kudeaketako aditua, Lola Ruiz Iglesias andrea

III. Osasun arloarekin zerikusia duten elkarteak eta korporazioak

Nafarroako Osasun Mentalaren Foroa, Alfredo Martínez Larrea jauna

Oinarrizko Laguntzako eta Familia Medikuntzako Nafarroako Elkarteak, Iván Vergara Fernández jauna

Nafarroako Sendagileen Elkargo Ofizialeko lehendakaria, Teresa Fortún Pérez de Ciriza andrea

ANASAPSen ordezkaria, Aitziber Yarnoz Lusarreta andrea

Nafarroako Erizainen Elkargo Ofizialeko lehendakaria, Pablo de Miguel jauna

Oinarrizko Laguntzako Sendagileen Espainiako Elkarteko lehendakaria, Félix Zubiri Saenz jauna

Nafarroako Farmazialarien Elkargo Ofizialeko lehendakaria, Pilar García Ruiz andrea

Arreta-defizita duten pertsonei laguntzeko Nafarroako Elkarteko lehendakaria (ANDAR), Josefa Equiza Gurbindo andrea

ELKARKIDeko zuzendari kudeatzailea (nahaste mental larria duten pertsonentzako zerbitzuak kudeatzeko enpresa), Ángel Gastón jauna

Nafarroako Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofiziala, Luisa Jusué Ripodas andrea

IV. Sindikatuak eta bestelako elkarteak

Erkidego-erizaintzako Elkarteko ordezkaria, Guillermina Marí i Puget andrea

Nafarroako Sindikatu Medikoko lehendakaria, Juan Carlos Sánchez de la Nava jauna

SATSEko Nafarroako idazkari autonomikoa, Reyes Mediano Gurrea andrea

Erizaintzako Laguntzaileen Sindikatuko ordezkaria, Begoña Ruiz Magalón andrea

LAB sindikatuko ordezkaria, Txomin González Martínez jauna

ELA-STV sindikatuko ordezkaria, Ana Urmেন্টa Marín andrea

AFAPNA sindikatuko ordezkaria, Mirian Filgueira Izcue andrea

AFAPNA sindikatuko ordezkaria, Kahlil Mugd-Said Abu Shams jauna

Irache kontsumitzaileen elkarteko ordezkaria, Manuel Arizcun Biurrun jauna

CCOO sindikatuko ordezkaria, Carmen Pueyo Basterra andrea

Agerraldia egin dutenek dokumentazioa ekarri dute, eta lan-taldeak behar bezala aztertu du dokumentazio hori.

6. Zenbait bilera egin ondoren, lan-taldeak honako txosten hau aho batez onetsi du, ekainaren 15ean eginiko bileran. Halere, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko ordezkariak txostena ñabartu eta osatu du, izenpetu duen boto partikularren bidez, zeina Batzordeari igorri baitzaio. Azkenik, eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 55.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, lan-taldeak erabaki zuen Parlamentuko Mahaiari jakinaraztea lan-taldeak bere lana amaitu zuela, Mahaiak Osasun Batzordeari dei egin ziezaion, txosten honetan onetsiriko proposamenak eta boto partikularra eztabaidatzeko.

II.- SARRERA

Txosten hau idaztean kontuan hartzen saiatu gara lan-taldean agerraldia egin duten pertsonen egindako ekarpen guzti-guztiak. Argi dago ekarpen guztiak ez direla txostenean jaso, zenbait arrazoi-rengatik ez diogulako egoki iritzi; besteak beste, horietako batzuen xehetasun- eta zehaztasun-maila handia zelako.

Agerraldia egin zutenei eman zitzairen Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Publikoaren Plan Estrategikoaren kopia bat, eta horri buruzko iritzia eskatu zitzairen. Halere, dokumentuak horien oihartzuna jasotzen du. Zenbait planaren balorazio orokor bat egin dute, beste batzuek alde zehatz baten azterketan jarri dute azpimarra, eta agerraldia egindakoen hirugarren talde batek, azkenik, dokumentuan jorratutako alderdietako

batzen kudeaketa dela-eta izandako esperientzia pertsonalaren berri eman du.

Lan-taldeko kideek zinez eskertzen dute agerraldia egin dutenek bere komunikazioetan egindako ahalegina, eta horietako bakoitzaren edukiaren balioa bereziki gogoan hartzen dute.

Lan-taldearen baitan izandako eztabaida nagusietako bat izan da, hala agerraldia egin dutenen aldetik nola lan-taldeko kideen aldetik, zein izan beharko litzatekeen plan estrategikoaren zehaztapen-maila, garapena oso ezberdina delako zein ardatz estrategikori buruz ari garen; ea maila estrategikoan gelditu beharko lukeen ala gehiago zehaztu beharko litzatekeen eta maila operatiboraino jaitsi.

Plana epe luzerakoa denez gero, baliteke maila operatiboraino jaitea beharrezkoa ez izatea, baldin eta estrategian ez bada anbiguotasunik interpretazioari dagokionez, argia bada, ongi definiturik badago eta apustu garbia egiten bada abian jartzeko, konpromiso esplizitua hartzen bada (kronograma eta guzti), eta, batez ere, aurrekontua esleiturik badu.

III.- GOGOETAK ETA BALORAZIO OROKORRAK.

Hemen aurkezten ari garen txostenak espresuki aipatzen du Osasun Departamentuak Nafarroako Parlamentuari emandako dokumentua, Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Publikoaren Plan Estrategikoa izenekoa.

Lan-taldearen helburua uneoro izan da Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Publikoaren Plan Estrategikoa sakon aztertzea, dokumentu hori izan baita plana hobetzeko baliatu den oinarriko dokumentua, espiritu kritikoa eta aldi berean eraikitzaile batez.

Txostenak plan estrategikoa osotzea bilatzen du, Osasun Departamentuak kontuan har dezan eta dokumentua osatuagoa eta anbiziotsuagoa izan dadin, ondoren Parlamentuari igor dakion onesteko, eta hurrengo urteetan Nafarroako Foru Komunitateko osasun arloko politikaren gida izan dadin.

Balioan jarri behar dugu Osasun Departamentuak aurkeztutako dokumentua bera, positibotzat eta egokitzat jotzen baitugu hausnarketa egin izana gizarte politikaren funtsezko zutabeetako bati buruz eta plan batean jaso izana helburu desiragarriko ideia positiboak. Nafarroako baliabide guztiak planifikatuko dituen eta plangintza horri garapen- eta segurtasun-aukerak emanen dizkion plan estrategikoa bat egin beharra dago, aukera

emanen diena osasun-sareko eragile guztiei hurrengo urteetako agertokia ezagutzeko eta, hartara, osasun-laguntzarik onena bermatzeko, eraginkortasun eta efizientzia parametroekin. Aukera hau ez dugu alferrik galdu behar.

Planak epe ertain eta luzerakoa izan behar duela uste dugu, osasun arloko politikak legegintzaldietatik harago doazelako, eta orain hartutako erabakiek ondorioak izan ditzaketelako hemendik zerbait urtetara.

Plan honek adostasun handia bilatu behar du, edozein gobernuak baliatu ahal izan dezan. Plan estrategikoan jasotzen den asmo handiko planteamenduak gehiengoaren adostasun politikoa exijitzen du.

Nafarroako osasun publikoa aterako da garaile baldin eta alderdien arteko eztabaida politikotik kanpo uztea lortzen badugu. Indar politikoen arteko adostasuna. Adostasunak, politikoa ez ezik, soziala ere izan behar du: hurrengo belaunaldiak izan behar ditugu gogoan, eta ez hurrengo hauteskundeak. Gizarte-eragileek plan hau babestu eta indartzea komeniko litzateke.

Garrantzitsua da planari buruzko eztabaida Parlamentuko lan-talde baten baitan egitea eta ondoren Nafarroako Parlamentuak onestea.

Aukera bat da, gure ustez, Nafarroako osasun sistema publikoa sendotzeko.

Dokumentu baliagarri eta erabilgarri bat dugu honako hau, Nafarroako osasun publikoaren etorkizuna diseinatzeko eta horri buruz hausnartzeko abiaburua.

Hemen zehazten diren ekarpenak jasotzeari begira, gomendioa da egoeraren diagnosi zehatzagoa egitea, kontuan hartuta, besteak beste, bizi dugun testuinguru ekonomikoa, bai eta modu zehatzagoan jasotzea zein diren plan estrategikoa egiazki betetzeko oinarrizko baldintzak.

Osasun Planak estrategikoa izan behar du batik bat, baldin eta Nafarroako osasunak heldu diren 12 urteetan egin beharreko bidea adierazi nahi badu, epe horretan plana garatzeko ardura duten osasun-administrazioek izan ditzaketen interes eta helburu zehatzak gaindituta.

Bokazio estrategiko hori, baina, ezin da anbigua izan, plana ezartzeko borondate argia islatu behar baitu, kronograma esplizitu bati jarraikiz, helburu operatibo argiak, ebaluazio-irizpideak eta kudeaketaren ardura izanen duten administrazio-unitateak ezarriz. Planak behar adinako malgutasuna izan behar du, zehazten den epe horretan

gertatzen ahal diren koiunturei egokitzeko, eta aplikatzeko borondatea argi geratu behar da.

Nafarroako osasun-sistemak, gainontzeko autonomia erkidegoetako osasun-sistema guztiek bezala, erronka handi bat du une honetan: iraunkortasun ekonomiko eta soziala, kinka larrian dagoena Europako nahiz Espainiako ekonomiek gaur egun bizi duten krisi ekonomiko sakonak eragindako egoerarengatik; Nafarroako ekonomiari ere eragiten dio horrenbestez.

Ekonomia- eta finantza-egoera horren azterketa sakonagoa egin behar du Osasunaren Plan Estrategikoak, egungo osasun-gastuarekin eta egungo beharrezanekin nahiz etorkizuneko joerekin loturik, hala nola

- Osasun-sistemaren finantzaketa publikoa handitu beharra, eta osasun-gastua arrazionalizatzea eta berregituratzea, osasun arloko sektorearteko 2010eko martxoko akordioan jaso zen moduan.

- Osasun-zerbitzuen eskaria etengabe igozteak,
- Berrikuntza teknologiko etangabea,
- Zerbitzu soziosanitarioen beharrezan gero eta handiagoak,

- Osasun arloko baliabideen eskuragarritasuna eta erabilera egokia,

- Gizarte ongizatearen estatuaren medikalizazio orako joera gero eta handiagoa,

- Piramide demografikoaren garapenaren proiektio objektiboak eta, ondorioz, populazioaren zahartzea.

Funtsezkoa da osasun arloko profesionalak inplikatzeko osasun arloko arazoak artatzeko eredu integralago batean, mendetasun txikiagoko batean eta herritarra gehiago gaituko duen batean. Funtsezkoa da, orobat, baliabide teknologikoak eta giza baliabideak, bai eta bere denbora eta gaitasunak ere, egokiro eta modu arrazionallean erabiltzea, ondoko ereduarekin bat:

a. Oinarrizko laguntzaren eta laguntza espezializatuaren integrazioa. Erronka handia da, eta osasun-sistema integratu bati egin behar dio bide, maila eta zerbitzu guztiek modu koordinatuan, elkarren menpekoan eta diziplina anitzekoan jardun dezaten. Koordinazio Plan bat egotea urrats garrantzitsu bat da, baina planaren betetzeari buruzko jarraipena egin behar da.

b. Antolamendu eredia. Osasun-sistema integratu baten sustapena jaso beharra dago; horrek ekarriko luke esku hartzen duten guztien eginkizunak birdefinitzea: kasuen kudeatzailea eta

koordinatzailea, diziplinarteko lan-taldean ekitea; praktika klinikoko gidak, ebidentzian oinarrituak eta arreta gaixoarengan jartzen dutenak, gaixoak parte hartuta horien diseinuan, prozesuan eta ebaluazioan.

IV.- ARDATZAK

Lan-taldean agerraldia egindakoetatik inork ere ez ditu auzitan jarri planaren ardatzak, gehienak bere egin dituztelako eta guztiz baliozkotzat jo dituztelako. Halere, ardatz horiei dagokienez lehenetsunak ezarri beharra aipatu da, zerbitzuen kalitatea ziurtatzeko eta helburuak etengabe ebaluatzeak tresnak eta prozedurak ezarri beharra, atzeraelikadura-prozesuak ahalbidetze aldera eta, hartara, plana errealitate sozial eta sanitario aldagarria, gizarte-koiunturara eta sistemaren baliabide-eskuragarritasunetara egokitze aldera.

Argiro ezarri behar dira plan estrategikoaren ekintza-lehenetsunak, helburuak eta jarduketatila. Sistemaren efizientzia lehenetsuneko helburua izan behar da osasun-kudeaketako edozein estrategiatan. Ahalegin bat egin beharra dago aurrekontu-esleipenaren arloan, ehunekoetan baino ez bada ere, ardatz horietako bakoitzeko gastu osoari eta GRD izeneko teknikak ebaluaziorako bitarteko gisa modu sistematikoan baliatzeari begira.

1. ardatza. Osasun arloko politika.

a. Ospitaleak bateratzea.- Lan-taldean agerraldia egindako guztiak bat etorri dira Iruñeko bi ospitaleak bateratzeko beharraz. Puntu horretan beharrezkotzat jo da Iruñeko ospitaleak antolatzeako plan bat garatzea, integrazioa helburu. Kudeatzaileek egin beharko lukete, eta, ondoren, pausoz pauso garatu, maila guztietara iritsi arte. Profesional guztiak inplika daitezten lortu behar da, arrakasta izateko aukera ziurtatzeko.

b. Kudeaketa klinikoak.- Oro har uste da kudeaketa-eredu hau erabakitasunez jorratu behar dela, kudeaketa klinikoko arlo eta unitateetan bermatuta, antolamendu arloan aurrerabide handia dakarelako.

c. Oinarritzko laguntzako zentroyen kudeaketaren deszentralizazioa.- Oinarritzko laguntzako zentroyen eta zentro espezializatuen kudeaketa-ahalmena handitu beharra dago, eginkizunak deszentralizatuta. Horretarako, kudeaketa deszentralizatuaren erantzukizun osorako tresna korrelatiboak ezarri beharra dago, programa-kontratuen edo gisako tresnen bidez.

d. Giza baliabideen lege-esparru berria.- Osasun arloko sektoreak ordezkatzan dituzten talde

guztiak bat etorri dira esatean komenigarria dela Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimenari buruzko 11/1992 Foru Legea hedatzea eta indartzea, egun-egun errealitatera egokitzeko.

e. Informazio sistemak Osasun Departamentuan integratzea.- Osasun arloko informazio sistemak gaineko eskumenak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren esparruan sartzea. Agerraldia egin duten guztiek nabarmendu dute informazio sistemak duten garrantzia osasun-sistemaren garapenean.

f. Nafarroako Osasun Zerbitzua erakunde autonomoa izatea.- Lan-taldea lanean egon den denboran oro har ikusi da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak erakunde autonomoa izan beharko lukeela ondorio guztietarako, osasun kudeaketaren erantzule, kudeaketaren protagonismoa berreskuratuta. Zerbitzuen espezifikotasunak eta zerbitzu horiek emateko moduaren ezaugarriek egiten dute osasun-antolamendua berezia izatea sektore publiko horren multzoaren barrenean.

g. Zentro itunduak.- Zentro itunduak erabiltze aldera aplikatu beharreko izaera teknikoko irizpide orokorrak definitu beharra dago, bai eta erabiltzaileen eskubideen arloan, informazio klinikoarenean, emaitzen ebaluazioarenean eta abar zentro horiek dituzten betebeharrak ere. Nafarroako Osasun Publikoaren zerbitzuko zentro itunduen zeregin estrategikoa definitu eta zehaztu beharra dago. Kontuan hartuko dira orobat zentro itunduei buruz Comptos Ganberak egindako gomendioak.

2. ardatza.- Gizartea eta herritarrek.

a. Irisgarritasuna.- Funtsezkoa da Nafarroako biztanle guztiei irisgarritasun unibertsala ziurtatzea. Gaixo mentalek osasuna erdietsi ahal izateko oztupoak aztertzea. Osasunaren erdiestean eragina duten faktoreen gaineko azterlanak garatzea. Erdiestea, ez bakarrik oinarritzko laguntzan, ezpada espezializatuan ere. Ekintza berri bat gomendatzen da: osasun arloan dauden ezberdintasunei buruzko azterlan eta zainketa bat egitea eta atzeritarren integrazioa hobetzeko jarduketak ezartzea.

b. Herritarren eskubideak.- Osasunaren arloan kontuan hartu beharrekoak dira "Gaixoen Foroak" egindako proposamenak eta Europako Kontseiluaren nazioarteko arauak. Herritarrek osasunaren arloan dituzten eskubideak hobeto definitu eta ziurtatuko lirake lege-mailako arau baten bidez, zeinak herritarren betebeharrak ere zehaztu beharko bailituzke, horrek sistemaren erabilera arrazionala egiten lagunduko luke eta.

c. Zerbitzuen zorroa.- Guztiz beharrezkoa da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzuen zorroa gutxieneko kalitate-bermeekin definitzea. Sistemaren prestazioak ere itundu beharra dago, ongi definitutako Kalitate Atributuekiko Zerbitzuen Zorro batean, baliabide eskuragarrien eta helburuen arteko koherentzia-tresna den aldetik. Kalitate-estandarrek zehaztu beharko dira, gardentasun eta ekitate tresna diren aldetik.

d. Herritarren parte-hartzea.- Gaur egun parte hartzeko dauden sistemak berrikusi eta aldatu behar dira, herritarren iritziak benetako eragina izan dezan osasun arloko baliabideak atxikitzeko prozesuan. Horiek berrikusi beharko dira, akatsak zuzendu eta beste batzuk taxutu beharko dira, herritarren protagonismoa areagotzeko sisteman eragina duten erabakiak hartzerakoan. Interesgarria izanen litzateke herritarrek parte hartzeko komiteak sortzea, osasun arloko gizarte-eragileen ordezkari zarekin.

e. Herritarren erantzukizuna eta autonomia.- Plan estrategikoan jasotzen diren neurriei beste batzuk ere gehitu beharko litzaizkieke; ondokoak, esate baterako:

- Herritarrek erantzukizunaren zati bat hartzea bere osasunari eta osasun arloko baliabideen erabilerrari dagokienez. Herritarrak osasun-sistemeekin ase egotearen helburua bateragarri egin behar da haien osasunarekiko erantzukizunean oinarritutako jokabide eraginkorrerako pizgarriekin. Horretarako, herritarra hezi eta sentsibilizatzeko kanpainak egin beharra dago.

- Beharrezkoa da gaixoen eta kontsumitzaileen elkarrekin lankidetzak, informazioa transmititzeko eta kontzientziario kanpainak egiteko.

- Herritarren boteretzak bultzatzea. Informazioa emateko ez ezik, erabakiak hartzeko harremanak aldatzeko ere.

f. Industria sektorea.- Ez dugu uste Osasun Departamentuaren eskumena denik, ezta Foru Komunitateko osasun-administrazioena ere, Nafarroako industria-ehuna sustatzea. Halere, Osasun Departamentua ezin da erabat aldentuta geratu osasunarekin lotuta dagoen industria sektorearen jardunetik. Edonola ere, Osasun Departamentuak egin lezakeen sustapen-lana Moderna Planean sektore horri buruz ateratako ondorioekin bat etorri beharko litzateke.

3. ardatza. Osasun Zerbitzuak.

a. Prozesuen araberako kudeaketa.- Profesionalek aho batez egiten dute kudeaketa-mota horretarantz aldatzeko apustua. Hori kudeaketa-eredu berrieekin osatu beharko litzateke, dauden

baliabideak erabilia. Eredu horiek egungoen funtzionamenduaren azterketa egin ondotik garatu beharko lirateke, eta egitura-aldaketetan eta baliabide-aldaketetan eta, bereziki, horien antolamenduaren aldaketan oinarritu beharko lirateke.

b. Medikuntzako Laguntzako Gune Teknologikoa.- Guneak zalantza ugari eragiten ditu, ezjakintasunagatik edo informazio ezagatik, kontzeptuagatik beragatik bainoago. Zentroaren funtzionamendua nolakoa izanen den zehaztu beharko litzateke, zer profesional izanen dituen, zer baliabide, zer prozesutarako izanen den eta zein izanen den funtzionatzeko modua. Funtsezkoa da, betiere, abian jartzen denean laguntza-zirkuituak ezar daitezen, laguntza integrala izan dadin.

c. Oinarrizko laguntzan kalitatea hobetzeko plana.- Babesa erabatekoa da, ahobatezkoa, zalantzarik gabekoa, plan hori arian-arian ezar dadin. Gobernuak onetsi egin beharko luke, kudeaketa-proiektu garrantzitsu honekiko konpromisoa formalki erakuste aldera. Aplikatzeko kronograma zehatz baten bidez osatu beharko litzateke. Oinarrizko laguntza eta laguntza espezializatua koordinatzeko prozedurak eta tresnak definitu beharko lirateke. Orobat gomendatzen da lanbide-eskakizunak birdefinitzea eta 14/1986 Foru Dekretua, eginkizunen arteko banaketa ezartzen duena, aldatzea.

d. Laguntza-mailen arteko lankidetzak.- Integrazioa handitzea ahalbidetzen duten formula ugari dago, plan estrategikoan jasota ez daudenak eta jasotzea merezi dutenak: kudeaketa-kontratuak, hobekuntza komiteak, artekariak, kasuen kudeaketa, gidak eta bilkurak. Oinarrizko laguntza eta laguntza espezializatua koordinatzeko plana birdefinitu beharra dago, ekintza-lerroak eta helburu zehatzak zehaztuta.

e. Historia kliniko informatizatua.- Historia klinikoaren ezarpena ez da homogenea, eta funtsezkoa da informatizatuta, gaurkotuta eta eskuragarri egotea bi maila horietan.

f. Gaixoen segurtasunaren arloko hobekuntzen sustapena.- Segurtasun klinikoa da osasun zerbitzuetako kalitatearen oinarrizko dimentsioetako bat. Osasun arloko nazioarteko agentzia, erakunde eta elkarte nagusiek estrategiak garatu dituzte, jardun klinikoan efektu kaltegarriak kontrolatzeko. Hortaz, bikaintasuna sustatu beharko da osasun-laguntzan, prozesuen kudeaketan arriskuen kudeaketa integratuta, segurtasunaren kultura garatuta, eraginkortasun aitortuko praktika klinikoak sustatuta, efektu kaltegarriak minimizatuta eta gaixoen segurtasunaren arloan ikerkuntza sustatu-

ta. Arlo horretan lan-ildo gehiago sartzeari gomen datzen da, hala nola:

- Informazio-sistema teknologikoak garatzea, diagnosi edo prozedura arloko akatsak ekiditen laguntzeko eta gaixoaren segurtasuna areagotzeko.

- “Gaixoen segurtasunaren eta efektu kaltegarrien batzordeak” ezartzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendaritza guztietan.

- Gaixoaren Segurtasunaren Behatokia sortzea.

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen segurtasun eta kalitate plana.

4. ardatza.- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta azpiegiturak.

a. Azpiegitura berriak.- Definitu eta zenbatu behar da zenbat azpiegitura berri behar diren. Azpiegituren amortizazio eta erabilera osoa da eraginkortasuneranzko urratsak egiteko beste alderdi nahitaezko bat.

b. Zentro teknologiko berriak.- Ezinbestekoa da definitzea zer zerbitzu emanen diren azpiegitura berri horietan eta nola koordinatuko diren lehendik daudenak. Agerraldia egin duten zenbaitek adierazi dute Nafarroa 2012 Planaren kariatara abian jarzen ari diren azpiegitura berriak desegokiak direla.

c. Osasun arloko teknologien berrikuntza.- Horren aldeko apustu garbia egin behar da zenbait arlo estrategikotan, esate baterako mendekotasunaren, hirugarren adinaren, autozainteten eta telemedikuntzaren, zainketa aringarrien eta telelaguntzaren arloetan. Autozaintetei lotutako teknologien berrikuntzak behartzen gaitu gaixoaren autozainteta babesteko tresnak ezartzera eta garatzera, bereziki gaixo kronikoen kasuan.

d. Informazio sistemen garapena.- Agerraldia egin dutenak bat etorri dira beharizan hori nabarmentzean. Informazio sistemen garapena funtsezkoa da horien guztien eguneroko lanari begira eta kudeaketa hobetzeari dagokionez aurrera egiteko eta gaixoentzako laguntzaren kalitatea hobetzeko. Oinarrizkoa eta presakoa da.

5. ardatza.- Giza baliabideak.

Agerraldia egin dutenek ekarpen ugari egin dituzte ardatz honi dagokionez, plan estrategikoan jasota ez zeudenak. Arlo horretan helarazi zaizkigun beharizanak jaso nahi ditugu, gure ustez kontuan hartu beharrekoak baitira.

a. Plantillak.- Profesionalen eskasiari aurre egiteko neurriak hartu beharra dago. Ezinbestekoa da

profesional-premien epe laburreko, epe ertaineko eta epe luzeko mapa bat egitea espezialitatez espezialitate, horiek ondo beteta daudela ziurtatu ahal izateko. Plantillak formula malguen bidez sendotzea: lanaldi erdiko plaza finkoak, aldizkako langile finkoak, eta abar. Beharrezkoa da orobat langile-zuzendaritzen egungo egitura, eginkizunak eta profilak aldatzea. Funtsezkotzat jo da lanbide-profilak berriz definitzea, bai eta erizaintzako laguntzaileen eta erizainen espezialitatea garatzea ere.

b. Langileen kudeaketa.- Negoziazio kolektiborako egungo estrategia, izaera erreaktibokoa, aldatu beharra dago, eta itun estrategiko bat egin beharra dago, izaera proaktibokoa, profesionalen, helburu estrategikoak lortzea xede. Langileei buruzko egiazko politika sustatzaile batera igaro beharra dago, profesionalak etengabeko hobekuntzan aktiboki inplika daitezzen.

c. Ordainsariak.- Ordainsariei buruzko politika berrikusi behar da, profesionalik onenak erakartzearen. Eraitzen araberako eta emandako zerbitzuen kalitatearen araberako pizgarriak eman behar dira; sekula ez jardueraren araberakoak. Aparteko lanaldiak desagertu beharreko ordainsari-sistema baten zati dira, eta beste ordainsari-sistema bat abiarazi behar da, zeinetan helburuen araberako pizgarriak emanen baitira, hartara areagotuko baitira antolamenduaren helburu estrategikoekiko konpromisoa eta inplikazioa. Arreta berezia eskaini behar zaie pizgarri ekonomikoari, zenbait kasutan profesionalen motibazioa kalteztzen ahal dutelako. Osasun arloko profesionalentzako pizgarrien sistemak kontuan hartu behar ditu diru-pizgarriek profesionalen berezko motibazioan izan ditzaketan ondorio arbuigarriak, eta kontuan hartu behar du orobat identitatea indartu beharra, motibazio-kapitalean inbertituz. Pizgarri ez ekonomikoak ere baloratu beharko dira, hala nola unibertsitatearekiko lotura, ikerkuntza, irakaskuntza, eta abar.

d. Prestakuntza.- Irakaskuntza plan berri bat behar da, Plan Estrategikoarekiko koherentea, bai eta gaitasun profesionalak ebaluatzeko eta garatzeko plan bat ere. Helburua da etengabeko prestakuntzaren eta garapen profesional etengabearen kultura sustatzea, behar diren tresnak baliatuta, sistemen kalitatearen berme gisa eta profesionalen pizgarri gisa.

6. ardatza.- Osasun-esparruak.

a. Prebentzioa eta osasunaren sustapena.- Gisa horretako programak bultzatu beharra dago, plan estrategikoan jasotzen diren programetatik harantzago.

b. Osasun mentala.- Lehenasunezkoztat jotzen da Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Mentalari buruzko Plana garatzea, zeinetan baliabideak eta prozesuen araberrako laguntza uztartzea planteatuko baita eta Osasun Mentalaren Sarearen eredu berri bat definituko baita. Funtsezkoa da, halaber, Haur eta Gazteen Osasun Mentala garatzea, berriazko programak eta azpiegitura berriak eratuta.

c. Zahartzean Laguntzea.- Zahartzean Laguntzeko Plan Integralaren garapena izan da lehenasunezkoztat jo beharreko alderdietako bat, denbora gutxian egin beharrekoa. Osasun mentalari buruzkoa dela-eta adierazi bezala, oinarritzakoa eta luzaezina dela uste dugu. Datu demografikoek eta proiektzioek, gaixotzeko moduak aldatzearekin batera, beharrezkoa egiten dute laguntza sistema egokitzea, beharizanak eta koordinazioa oinarri. Laguntza geriatrikoaren berrantolamendu orok laguntza orokorrari lotuta joan behar du, eta, hortaz, guztiz egokia da laguntza integralaren definitzea.

d. Osasun publikoa.- Osasun publikoa aldatu eta modernizatu beharra dago. Osasun publikoaren eginkizunak, estrategiak eta antolamendua berrikusi behar dira nahitaez, Estatuko, Europako eta nazioarteko joerekin bat. Osasun Publikoaren Institutua behar adina ikuskariz hornitu beharra dago, osasun publikoa bere esparru guztietan ziurtatzearen. Osasun publikoak garrantzi handiko zeregina du, eta hori nabarmendu beharra dago.

e. Lan osasuna. Gure ustez, ez dira zorroztasunez eta zehaztasunez jasotzen eta definitzen estrategiak, jarduketak eta ardurak, epea, eta abar, lan osasunari buruzko politika eraginkor eta efiziente bat ziurtatu ahal izateko. Ondokoak jaso beharko lirateke: faktore psikosozialen prebentzioa, kolektibo zehatzentzako laguntza, bai eta ezgaitasuna duten langileentzako, emakume langileentzako, langile atzeritarrentzako, gazteentzako eta autonomoentzako laguntza.

7. ardatza.- Ikerkuntza.

a. Itun estrategikoak.- Faltan dugu unibertitate publiko baten erreferentzia, estrategikoa izan daitekeena itunak egiteari begira. Nafarroan sektore pribatua da nagusi ikerkuntzaren esparruan, eta beharrezkoa izanen litzateke jakitea arlo horretan itun estrategikoak egiten ote diren eta eginez gero zein izanen diren. Agerian jarri beharra dago inguruko autonomia erkidegoetako beste unibertitate batzuekiko loturak ezarri behar direla, eta entitate pribatuekin lankidetzan aritzeko modu bat taxutu behar dela, ikerkuntza-hitzarmenak iradokiz.

b. Profesional ikertzaileak.- Ikuspegi murriztaile izatea da sendagileak soilik sartzeari ikertzaileen multzoan, erizainek ere ikerketa-lanetan jarduten dutelako; eginkizun hori, izan ere, lanbide-karreraren jasota dator. Beste profil ikertzaile batzuk ere hartu beharko lirateke kontuan: farmazialariak, biologoak, eta abar.

8. Balizko beste ardatz batzuk

- Kalitatea. Ezinbestez ezarri behar da kalitate politika bat. Nafarroako osasun-sistemaren helburu iraunkorra izan behar du sistemaren funtzionamenduaren kalitate osoak. Halatan, sistemak emandako zerbitzuen ebaluazio eta egiaztapen etengabeko prozesuak eta tresnak taxutu behar dira kalitate-politikaren testuinguruan. Aurreikusitako helburuen kuantifikazioa ere ahalbidetu behar da, etengabe ebaluatzeko irizpide objektiboak baliatuta.

- Laguntza soziosanitarioa. Nafarroako Gobernuak aldeaz aurretik arautu behar du Laguntza Soziosanitarioaren Zerbitzu Integralen Zorroa, arreta berezia jarrita oinarritzako laguntzako zerbitzuetan. Osasun laguntzaren eta laguntza soziosanitarioaren arteko koordinazioa areagotu behar da, bai eta bi zerbitzuen kudeaketaren artekoa ere. Informazio bateratua baliatzeko tresnak ezarri beharko dira, eta etxeko laguntzako eta telelaguntzako programak definituko beharko dira.

V. ONDORIOAK

Plan Estrategikoa hau Nafarroako osasun publiko hobetzeko benetako aukera izan dadin, berrikusi egin beharko litzateke dokumentua, hemen jaso diren ideiak kontuan hartuta, profesionalen parte-hartzea handituz, ekintzak hautatuz eta lehenasunak ezarriz, ekintza horietako bakoitzean sakondu ahal izateko eta, hartara, horien aurrekontua egin ahal izateko eta ebaluazio sistemak sartzeko, halako moduan non ekintza bakoitzak definituta izanen baititu prozesuaren adierazleak eta lortu nahi diren emaitzak, exekuzio-epeak eta arduradunak.

Hortaz, ondokoak erabaki da:

1. Osasun Departamentuari honako dokumentu hau igortzea, kontuan har dezan Osasun Publikoaren Plan Estrategikoaren osagarri gisa, zeina lantaldeak erabili baitu ekarpenak egiteko lan-dokumentu gisa.

2. Departamentuari eskatzea Plan Estrategikoa berrikusi eta osa dezan hemen jasotako ekarpenak baliatuta, eta, ondoren, Nafarroako Parlamentura igor dezan, bertan onets dadin. Aukeran, Osasun

Departamentuko Plangintza Zerbitzuak berrikusi eta osatuko du plana.

3. Azpimarratzea garrantzitsua dela Nafarroak plan hau edukitzea, osasun arloko politiken ildo nagusiak markatzen dituen heldu diren urteetarako.

4. Plan Estrategikoa berrikustean eta onestean kontuan hartu beharko dira Nafarroako Parlamentuak berrikutan onetsitako legeak, Plan Estrategikoa taxutu zenean indarrean ez zeudenak.

Iruñean, 2010eko abenduaren 21ean.

Lan-taldeko Lehendakaria: María Chivite Navascués

NABAI PARLAMENTU-TALDEAK OSASUNARI BURUZKO PLAN ESTRATEGIKOAREN IRIZPENA DELA-ETA EMANDAKO BOTO PARTIKULARRA

1.- Testuak ondokoa dio: “Nafarroako osasun publikoa aterako da garaile baldin eta alderdien arteko eztabaida politikotik kanpo uztea lortzen badugu. Indar politikoen arteko adostasuna. Adostasunak, politikoa ez ezik, soziala ere izan behar du: hurrengo belaunaldiak izan behar ditugu gogoran, eta ez hurrengo hauteskundeak.” Gizarte-eragileek plan hau babestu eta indartzea komeniko litzateke.

Nafarroa Baik uste du ondokoa adierazi beharko lukeela: “Gizarte-eragile eta eragile politiko GUZTIEK plan hau babestu eta indartzea komeniko litzateke, bazterkeria politikorik eta alderdikierarik gabe.”

2- Lehenengo ardatzean: Osasun arloko politika

Zentro itunduei buruz ari delarik, Nafarroa Baik puntu hori ezabatzen du eta ardatz horretan bertan ondokoa gehitzen du: “Zehaztu egin beharko

litzateke zeri buruz ari den osasun-eredu berri bati buruz ari denean, ea eredu berri bati buruz ari den oro har –hala baldin bada, egungo ereduaren analisia egin beharko litzateke, ereduz aldatu beharra justifikatzeko–, ala, aldiz, osasun-antolamendua- ren eredu berri bati buruz ari den. Ereduak oinarri izan behar du sistema publikoaren aldeko apustu irmo bat, beharizanen azterketa zorrotz baten arabera garatzearen aldeko bat. Osasun publikoaren aldeko apustu argia eta irmoa egin behar da, ezertan amore eman gabe, halako moduz non gaur egun modu itunduan erabiltzen diren baliabideak behin-behinekoz soilik erabiliko diren horrela, eta ez sistemaren parte gisa.

3- Bigarren ardatzean: gizartea eta herritarrak

f) letran –industria sektorea– ondokoa dio: “Ez dugu uste Osasun Departamentuaren eskumena denik, ezta Foru Komunitateko osasun-administrazioena ere, Nafarroako industria-ehuna sustatzea. Edonola ere, Osasun Departamentuak egin leza- keen sustapen-lana Modernan sektore horri buruz ateratako ondorioekin bat etorri beharko litzateke.” Nafarroa Baik Moderna Planari buruzko aipamen oro kentzen du hortik.

4- Hirugarren ardatzean: osasun zerbitzuak

b) letran –Medikuntzako Laguntzako Gune Teknologikoa– ondoko testua proposatzen dugu:

Gunearen abiarazpenak zalantza ugari eragiten ditu, ezjakintasunagatik edo informazio ezagatik, kontzeptuagatik beragatik baino gehiago. Zentroaren funtzionamendua nolakoa izanen den zehaztu beharko litzateke, zer profesional izanen dituen, zer baliabide, zer prozesutarako izanen den eta zein izanen den funtzionatzeko modua.

Zentro horri buruz iragarri diren oinarri filosofikoak sistema osoari aplikatu behar zaizkio, eta ez soilik zentro berriari, arazoak ekidin daitezen ekitateari, irisgarritasunari, koordinazioari, zerbitzu bikoiztuei eta abarrei dagokienez.

